

# ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TXOSTENA

**Aldez aurreko kontsulta publikoa, IKKS 2020 Araua onartzen duen Foru Aginduaren proiektuari buruzkoa. Arau horrek arautzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko betekizunak.**

---

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburua
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile edo ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da erantzuna ematea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko lege horren 133.1 artikulua planteatzen dituen gaiei, eta oinarria izatea Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistemak-IKKS 2020 Araua onesten duen Foru Aginduaren proiektua egin aurreko kontsultarako, hartara, arauaren hartzaile potentzialek eta, oro har, herritarrek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Arau horrek arautzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak (KKS) garatu, ezarri eta aitortzeko betekizunak.

#### A. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

IKKS Arauak, zeinak arautzen baititu Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak (KKS) garatu, ezarri eta aitortzeko betekizunak, abiapuntua du Nafarroako ikastetxe publikoetarako erreferentzia-eredu propioa garatzeko aukera, horretarako oinarri hartuta nazioarteko kudeaketa ereduak, enpresa ingurunean hain arrakastatsu ezartzen ari baitira.

KKSak ikastetxeetan ezartzen joan dira, IKKS 2013 Arauaren arabera, eta azken urteetan arazo hauek hauteman dira, besteak beste:

- KKS arinak eta eraginkorrak garatzeko zailtasuna.
- Hutsuneak kudeaketa sistemak ikastetxeen nahiz Hezkuntza Departamentuaren itxaropen eta betekizun berrietara egokitzean; eta, bereziki, ikastetxeek bete behar dituzten beste elementu eta arau-gai batzuetara hobeki egokitu eta horiek koordinatzeko.
- Hutsuneak ikastetxeen funtsezko emaitzak lortzea errazten duten kudeaketa sistemen ezarpenean.

#### B. Onespenaren beharra eta egokitasuna.

Egokia da IKKS 2020 arau berria onestea, horrek aukera ematen baitu, batetik, araua garatzeko erreferenteetan gertatu diren aldaketa garrantzitsuak integratzeko, eta, bestetik, ikastetxeen kudeaketa hobetzeko.

IKKS arauaren azken bertsioa argitaratu zenetik aldaketa hauek izan dira:

- Ikastetxeek garatutako esperientzia. Lehenengo inspirazio iturria ikastetxeen kudeaketa esperientzia bera da, azken urteotan Kadinetek foroen eta sareen bidez jaso.
- Aurrerapen teknologikoei esker, Kadinet tresna berriak garatu dira, ikastetxeen kudeaketa bizkortzen laguntzen dutenak.
- Paradigma aldaketak hezkuntzan, eta hezkuntza esparruan aplikatu beharreko arau aldaketak.
- IKKS arauarentzat erreferente diren nazioarteko kudeaketa eredu eta arauetan egindako aurrerapenak:
  - EFQM eredua, nazioartean garrantzitsuena eta gure inguruan ezarpen handia duena; 2019ko urrian aurkeztu zen azken bertsioa.
  - Kudeaketa Aurreratuaren Eredua, EFQM ezartzearekin lortutako esperientzian oinarritua, 2013an aurkeztua eta 2018an berrikusia.
  - ISO arauak (Normalizaziorako Nazioarteko Erakundea). Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren Arauaren azken bertsioa da ISO 9001:2015 araua.

### C. Arauaren helburuak.

Foru agindu horren helburua da IKKS 2020 Araua onestea, zeinak arautzen baititu Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko betekizunak.

Hauek dira arau berriaren helburu nagusiak:

- Kudeaketa sistema eraginkorrak garatzeko tresna bat eskaintzea, horren bidez erantzuna emateko ikastetxeen nahiz Hezkuntza Departamentuaren behar eta itxaropen berriei.
- Kalitatea kudeatzeko sistemen arintasuna bultzatzea, teknologia digitalak hezkuntza ingurunean integratuz.
- Nafarroako ikastetxe publikoen funtsezko emaitzen hobekuntza bultzatzea, etengabeko hobekuntzaren eta prozesukako kudeaketaren aldeko apustuan oinarrituta, horiek baitira IKKS 2020 Arau berriaren funtsezko elementuak.

D. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile edo ez-erregulatzaileak.

Ez da aurreikusten beste konponbiderik (araurik edo arau ez denik).

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, bat etorritz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoarekin.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 23an

ANTOLAMENDU, PRESTAKUNTZA ETA KALITATE ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Pablo Arriazu Amat